



Jon Rekondo eta Joseba Otaegiren arteko apustua, abenduaren 23an

TOLOSA ▶ Herenegun zehaztu zuten Kantabriko tabernan; Tolosako zezen-plazan lehiatuko dira

ADOSTURIKOA ▶ 4.000 euro jokatuko dituzte; 8 kanaerdiko eta 60 ontzako 6 enbor moztuko dituzte ▶ 7



Herenegun gauean egin zuten hitzordua Joseba Otaegik eta Jon Rekondok Kantabriko tabernan. ASIER IMAZ



JOXEMI SAIZAR

Joseba Rojok irabazi du Hernialdeko Igoera

TOLOSA ▶ 77 parte-hartzaile izan zituen atzo Hernialdeko Rolleski Igoerak; Cynthia Martinez izan zen lehena emakumeetan ▶ 6



laster azkarrago...



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308
berria



IRUDIETAN ▶

Hiru minututan
nork uzta
gehiago sartu

ERREDAKZIOA

Ikuskizun bikaina ikusi ahal izan zen atzo zezen-plazan. Izkingileak, nork uzta gehiago sartu bigantxen adarretan ibili ziren atzo. Denera, bederatzik bikotek hartu zuten parte, Marques de Saka edo Lasturko zenezak ganadutegietako bigantzak zirikatzen.



ASTEKO IRUDIA ▶



Voith-Gorostidiko tasatuen zozketa egin dute

Erredakzioa ▶ Asteazkenean egin zuten Leidor aretoan Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuen lehendabiziko zozketa. Loteria-ontzietatik atera zituzten lehen 292 zenbakiak dira etxebizitzaren behin-behineko jabeak. Abenduan egingo dute bigarren zozketa. i.r.



LIZARTZA ETA AL JAZEERA KATEA ▶

Mundu zabalean. Al Jazeera-ren ingelesezko katean *People and Power* saioan euskal gatazkari buruzko erreportajea eman zuten duela bi aste inguru. Saio horretan, Lizartzako kasua hartu zuten ardatz bezala, goian, katearen webgunean ikus daitekeen bezala.

Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 39. Abesbatza-Lehiaketa Urriaren 27tik azaroaren 4ra

Urtaro berria bere Gicarte Ekintzaren bitartez, kutxak laguntza eman die aurturako Tolosako Abesbatza-Lehiaketari, beronen 39. Edizioa babestuz, gure herriaren musika, kultura eta buldak zabaltzearen.

39. abesbatza-lehiaketa 2007 10-28-11 19h.30a

gicarte ekintza kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net kutxa

**UZTURRETIK ▶
FELIX
IRAZUSTABARRENA**



**Txikien
indarra
Alegian**

Irakurri berri dudan artikulu batetan eltxo txikiek nola elefanteak izutzen dituzten azaltzen zen. Egindako ikerketaren arabera, mozkitok taldean biltzen direnean egindako soinuak pakidermoak ihesean jartzen ditu.

Artikulu horretan, adibide hori txikien indarra, gutxi askok zenbat egiten duten azaltzeko, erabiltzen zuen. Alegian marxan dauden bi ekimenekin lotu dut eltxoen indarra. Biak gainera zomorroak dituzte ikur bezala edo.

Lehenaz Azaro Kulturala da, erle batekin eta bere aberaskarekin irudikatu dutena. Herriko Kultur Batzordeak, herriko talde guztiak, ekitaldiz bete dute datorren hilabetea, egun liberrik eta tarterik aurkitu ezinik ibili dira programa osatzerakoan. Bakoitzak beretik eta denek batera lotutako azaro aberatsa izango dugu. Aberaska aberatsa, mila lore, kolore eta zapore elkartu eta lotu dituzte elkarrekin. Ikuskizunak, emanaldiak, hitzaldiak, erakusketak, festak, kalejirak, irteerak, kontzertuak... Ekimen txiki asko zerbait haundi eginez.

Eta bigarrenak arma arma edo zehazkiago sarearekin du zerikusia. Interneteko sarearekin alegia. Banako batzuk hasiak ziren bere blogetan herriko kontuak azaltzen. Batak bestea kontagiatu zuten, honek bestea animatu, partikularrak, taldeak, bertso eskola... inplikatu eta sarearekin betetzen doa. *Tontokaletik, bikatu, balerditik, musikalegi, zazpiastorengainean*... elkarri babesa emanez sortu eta elkar lotzen joanda Txintxarrisfera osatu da. Honek wiki bat, webgune kolaboratiboa, eratu du. Izena sekula entzun gabe zeudenak ere lanean hasi dira. Emaitzak ikusteko goiz samar bada ere, sarearekin osatzen doa eta arma arma jo ta ke.

Euskal Herrira, nazio erakuntzara, kultur eragiletzara... ere ekarri nahi nuen txikien haunditasuneko metafora baina esplikazio askorik gabe garbi geratzen dela uste dut. Lana eta antolaketa dira bideak.

POLITIKA ▶

«Urte bat daukagu baietz esateko»

Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria Leidorren izan da, bere bidai orria aurkezten

ESTI EZEIZA

Herenegun Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria etorri zen Tolosara, «Euskal gatazkaren konponbideari heltzeko proposamena» aurkeztera. Bertan izan ziren EAJ alderdiko ordezkari nagusiak.

Ibarretxe labur eta zuzen mintzatu zitzaizen bertaratutako zirenei. Berak prestatutako bidai orriaren arabera, «urte bat daukagu negoziatzeko eta kontsulta egiteko». Epe horretan, gainontzeko alderdiak duten ikuspuntua aztertuko dute. Aipatu zuen ere, «orain arte PP eta PSOEek ezetz esan diotela kontsultari, negoziatioari eta galdeketa egiteari, eta guk urte bat daukagu baietz esaten ja-



Ostegunean, Leidorren egindako agerraldiaren une bat. E. EZEIZA

rraitzeko». Bere ustez, Hego Euskal Herrian PPK eta PSOEek onartzen ez dituzten gauzak legez kanpokoak dira. Horren adibide gisa ipini zituen: «Batasuna eta estatutu politiko berriaren aurkezpena».

Agerraldiaren hasieran Joseba Egibar, Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakaria mintzatu zen. Bere hitzetan, «duela 166 urte, hau da, 1841ean, Euskal nortasunaren kimuketa eman zen. Kimuketa horren on-

doren, urte asko beranduago, 1979an Gernikako estatutua onartu zen. Tarte horretan, euskal nortasuna berreraikitzen joan zelarik, denon ahaleginari esker. Egun, garai hartako sustraiak mantentzen dira eta hori, bitarte honetan guztian zaindu direlako izan da. Hala, enborra, herri borondatea da, eta hori bera da gatazkaren konpobiderako bidea». Datekin jarraituz, datorren urteko urriaren 25a aipatu zuen, «lehendakariak agertutako egutegiaren arabera, hori izango baita galdeketa eguna». Egibarrek, Ibarretxek Parlamentuan egindako hitzekin amaitu zuen «ziurrenik Europako herriarik zaharrena daukagu, eta gure etorkizuna erabakitze eskubidea dugu».

«Ez ginategi zerotik hasiko»

Batasuneko Pernando Barrenak egungo egoera politikoa izan du hizpide Tolosan

IMANOL GARCIA

Pernando Barrena Batasuneko bozeramailea Tolosako Kultur Etxean izan da aste honetan egungo egoera politikoa irazteko hitzaldia emateko. Besteak beste, euskal gatazka konpondu ahal izateko, etorkizunari begira egin beharreko lana «ez dela inondik ere zerotik hasiko» azaldu zuen. «Azken urteetan egindako lanak eraman ditu alderdi eta agente ezberdinak zein den edo non aurkitu daitekeen konponbiderako bide adostu bab».

Ezker abertzaleak hori guztia *Marko demokratikoa Euskal Herriarentzat* proposamenean marraztuta duela esan zuen. «Lau herrialdeentzako autonomia bat erabakitze gaitasunarekin izan daiteke



Pernando Barrena, Kultur Etxean emandako hitzaldian. I. GARCIA

modu bat bide hori erabakitze-ko», azaldu zuen eta «edozein formularen gainetik herritarrek izan behar dute azkeneko hitza», gaineratu zuen.

Barrenaren ustez, Alderdi Sozialistari eta Espainiako Gobernuari exijitu behar zaio,

«benetan noizbait hemen konponbide bat egongo dela pentsatzen badute, barneratzea azkeneko bi urte hauetan erabat kanpo utzi duten ikuspegi bat eta pentsatzea arazoa politikoa dela eta konponbidea benetan politikoa izan behar due-

la». Azken bi urtetan gatazkari egin dioten gerturaketa («erabat teknikoak» izan dela esan zuen.

EAJri dagokionez, «gabezia ikaragarria» ikusi dio aurreko prozesuan zehar, «gehiago egon direlako pentsatzen balizko konponbide baten ondoren, beraien kokapen politikoan, bai instituzionalki bai eremu politikoa osoan». Azkeneko 25 urteetan eraman duten «instituzioen etengabeko kudeaketa horrek izugarritzko pisua du beraien erabakietan» zehaztu du.

Bestalde, konponbide prozesu batean arrakastaren bat lortu ahal izateko, Barrenak dioenez «beharrezkoa da partehartzaile guztien konpromisoa bortzakeria ezazko posizioekin».

**ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK- URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

GIZARTEA ▶

Tolosa, bizitza handiko herria

Nahiz eta hogei mila biztanle baina gutxiago eduki, Gipuzkoako herririk aktiboenetarikoa bat da; aurten ondare historikoaren kontsebazioa saria irabazi du Alde Zaharrean egin duten lanarengatik

HARRI BELLOSO

2006. urtean, Tolosak 750. urte bete zituen hiribildu izendatu zutenetik eta aurten ondare historikoaren kontsebazioaren turismo saria lortu du, varlo horren zaintzan eta mantentzean egin duen lanarengatik. Beraz, gure herriaz harro egoteko arrazoiak baditugu, Gainera, turismo bulegotik dioten bezala, «turista asko arri dira gurturatsen eta beraien impresioak oso onak izaten arri dira». Gipuzkoako mallan garrantzi handia duen da lortzen, bator ere kultura eta ostalaritza mallan».

ten da herriko hiru lekuetan. Zerkasian hemengo produktak saltzen dituzte. Berdura plazan loreak eta landareak, eta azkenik, Euskal Herria plazan, kanpoko produktuek eta elinak.

Ostalaritzak garrantzia handia du Tolosan, eta horregatik gastronomi-zikloak ospatzen dira Tolosa Gourmet-en baitan. Herrian eta bere inguruko zonaldetan ezagunak diren oilagaitzak izaten dira nagusi: Aste Santuan Arrautzean Festa izaten da, azaroan Babarru-

naren Astea ospatzen da eta abenduko zubian Txuleta-aren Festa izaten da. Kanpotik jende asko etortzen da ekitaldi hauek, hemengo produktuekin eta bertako giroaz gozatzera.

Baina Tolosak gaur egun duen fama azalzeko ifauterietan buruz hitz egin beharke gure herri Mendekende traba zuten gainetik ospatu da eta leku askotan ezaguna dela esan daiteke. Sei egun izaten dira, non herriarrek beraien oilko jarduerak alde batera uzten dituzte festa disfrutzeko. Her-

riko Kaleak txarangez eta politik eta alai dagoen jendez betetzen dira.

Zaindariaren jaia San Joanak dira eta ekainaren 24ean ospatzen dira. Bezeran sua puzten da Andre Mari plazan San Joan zortzikoaren doina entzuten den bitartean. Zaindariaren egunean Alardea, San Joanen prozesioa eta Bordonantza egiten dituzte. Horretaz gain, zazenketak, estropadak, su festak, eta abar egiten dira.

Tolosaren balio kulturala oso altua da, batez ere, gori-malako ekintzak ospatzen direlako. «Oso herri gutxi daukate herri-lako kultur programazio bat eskaintzea», azaldu izan dute Udaltz. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketak eta Txotxongilo Jaialdiak Tolosan izena mundu osoan zabaldu dute.

Garrantzi handiko eraikinak

Tolosan eraikin garrantzitsu asko daude, bai historia asko dutelako, bai oso ikusgarriak

dirrelako. Herriko bat zerkasua da. Mendekende zehar baserritarrek beraien produktak bertan saltu dituzte eta orain herriko ikurteratiko bat da.

1503ko sutea eta gero gaur egun oraindik zutik dagoen Santa Maria eliza egin zen. Aurrealdeko barrokoa du, erdian kanpandegia kokatzen da eta alboetan bi dorre txiki daukate. 1.630 metro karratuekin Gipuzkoako tenplu handienetako bat da.

Alde Zaharrean eratutako Plaza Berriak badu bere historia ere XVIII. mendean hasieran egin zuten eta bertan lagarren udaletxea jarri zuten, gaur Abastos deitzen zaion eraikimena, hain zuzen.

Masia altuko eskultoreen obrak lusu daitezke Tolosako kaleetan. Eduardo Txillidaren

Lizardiren leihoa eta lorge Oteizaren Atsuak eskultura onetsuak, esaterako, gure herriko trudi bilakatu dira.

Mugarik ezagutzen ez duen gastronomia

Tolosako jatetxe eta taberna punta-puntako sukaldaritzak eskaintzen diete bisitariak. Herriko produktu tipikoena babarruna da. Kolore beltzeko da, aspalditik eskualdeko baserritarrek elokiztu dutena. Petak, Zigarritxoak eta Xuxuak bezalako produktu gozoen fama herriko kanpo ere hedatu da. Tolosako errelegiak ingururiko fama dute atzerriari, eta eguneko kanpotar asko joaten dira bertara bazkaldu edo alafiteza. Hemengo produktuekin lan egiten duten jatetxeek ere badute sona herriko at.



San Joan jaian baitan, eskopetariak kalean. Herri osoa zeharkatzen dute egun osoan zehar. I. KAPLAN/AGF



Udaletxea XVII. mendean eraiki zuten, estilo barrokkoa da eta arkupea du. IRIGOI/TERRELLAS

Aldaketa asko urteen zehar

1256. urtean, Alfonso X.a Jaki-tunak Tolosa izendatu zuen, Oritzeta eta Segurarenkin batera. Barnealdeko hiru babesleku bezala egin ziren, Gaztelak Nafarroako Erresumarekin zuten mugan zehar.

Arazoi estrategikoengatik herrigunea Kale Nagusiaren eta Andre Mariaren inguruan egituratu zen. Era berean, herriaren zehar harresiak eraiki ziren.

1903an, sute handi batek Tolosa guztiz suntsitu zuen, eta, hurrez gero hiria harritz berretailuzten hasi ziren. Antzinateko sei kaleen trazatua ikus daiteke oraindik, eta Gaztelako atea mantentzen egiten da, gaur egun herriko sinboloetarikoa bat izanirik.

Ohitura desberdinak

Duela mende asko Tolosa Azoka Hiri bezala ezagutzen zuten. Bertan erremontari, arto, haragin, artissu eta merkataritza ugari bizi eta lan egiten zuten. Ohitura horri esker mahaietan urteko larriubait guztizetan azoka egiten



750. urtemugaren ostean, Tolosak 2007ko ondare historikoaren kontsebazioaren turismo saria lortu du. HARRI BELLOSO

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zuek idatzi. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webguneak. Herriarriko **Zuek idatzi** atalera jo behar duzu, eta bertan jarri zure berria. Edozein zalantzarikoa kontaktu jarri ahal izateko datuak jaritzea komeni da. ▶

SEGUROS ELEBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

Laskurain, 8 behe • TOLOSA
Tel./Faxa: 943 65 18 77

Iurre 16
Tolosa

943 67 02 77

IXABEL OINETAKOAK

SUPER EKO

Zumalakarregi kalea, 4
Tel.: 943 65 43 52
943 65 09 01
TOLOSA

Handiak, Berrak, Berrak, Berrak

ELEKTRIKIADAR ELUSTONDOP

- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Aletzen automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarantz instalazioak, etxebizitza, denda...

Iurre Ausos, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb. 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

MAIXINA

Etxebizitza elektrikoaren konponketa

Laskurain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

POXPOLIN

poxpolin@poxpolin.com
www.poxpolin.com

San Francisco, 21
20400 TOLOSA
943 655 355

- Dekoraziorako enmarkazioak
- Aholkularitza pertsonalizatua
- Herrialdeak • Omenaldiak • Opariak
- Obra originala eta grafikoa

VILLABONA ▶ KULTURA



Eskualdeko ahotsak garaipenaren bila

Erredakzioa ▶ Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zuten atzo Villabonako Gurea aretoan. Atzokoan, zortzi bakarlarri eta lau bikote entzun ahal izan ziren. Horietatik, gehienak, eskualdekoak izan ziren: Berastegi, Ibarra, Zizurkil, Villabona, Asteasu, Lizartza eta Tolosakoak. Datorren astean, Lezon izango da hirugarren kanporaketa. Azkenik, finala, hemendik bi astera izango da, hau da, azaroaren 10ean. Azken saio hau Donostiako Antzoki Zaharrean burutuko da. E. EZEIZA

TOLOSA ▶ KULTURA



Ametsetako mamuak hezitzen ikasteko

Erredakzioa ▶ *Pizti domatzailea* izeneko antzezlanaren izenak antzezlanaren protagonista izan zen ikusgai atzo. Hala, haur ugari hurbildu zen Leidorrera, Eider, antzezlaneko protagonistak, bere amets gaiztoetako piztiak nola domatzen zituen ikustera. Izan ere, neskatoa, beldurtu egiten da oheko bakardadearen isiltasunean, gaueko itzalen artean piztiak agertzen zaizkiola. Baina, gauzak aldatu egiten dira, izan ere, Eiderrek aurre egingo die mamu guztiei. Gaztetxoak zein gurasoak, guztiek ederki igaro zuten antzezlanarekin. E. EZEIZA

HERNIALDE ▶ ROLLESKIA

JOXEMI SAIZAR

Aurtengo Hernialdeko Rolleski Igoeran, zazpigarrena, 77 patinatzailek parte hartu zuten eta Alpino Uzturre mendiko elkarteak Joseba Rojo tolosarra (13'52") izan zen lehena plazako helmugara iristen. *Skating* edo estilo librean parte hartu zuen Rojok, eta estilo berean emakumeetan Ermitagañako Cynthia Martinez izan zen lehena; infantiletan berriz, Alpino Uzturreko Xabier Saizar tolosarra eta Erronkariko Miren Arnaez izan ziren lehenak. Rolleskilari hauek Tolosako Belate auzotik abiatu eta lau kilometroko ibilbidea burutu zuten Hernialdeko plazaraino atzoko proban, aldapan gora.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Trikitixa. Egoera onean dagoen trikitixa. 669 67 36 49.

Pottokak eta traktorea.

Pottoka kalifikatuak eta dirulaguntzarekin, eta traktorea Agria 9900, egoera onean. 692 16 61 80 eta 692 54 49 36.

Pisua. Diseinuko pisua

Lizartzan. 110 m2, belardiboarekin. 38.000.000 pezeta. 653 74 47 75.

LANA

Sukaldaria. Tolosan sukaldariko pertsona bat behar da ostiral eta larunbat gauetarako. 699 71 02 73.

Alpino Uzturreko Joseba Rojok irabazi du Hernialdeko Igoera

Martinez, Saizar, Arnarez, Sanz, Mendikute, Osoro eta Lopez izan dira beste irabazleak 77 korrikalarien artean



Hernialdeko 7. Rolleski Igoerako 77 parte-hartzaileak sariak jaso ondoren. J. SAIZAR

Estilo klasikoan berriz, Hernialdeko Bentatik abiatu eta 3,2 kilometroko proba egin zuten parte-hartzaileek. Hauen artean, helduetan Uharteko Unai Sanz eta Alpino Uzturreko Dina Mendikute hernialdearra

izan ziren lehenak, eta infantiletan Eibarko Pello Osoro eta Irungo Maialen Lopez.

Zortzi irabazleek gazta bana eramane zuten etxera eta Aralar Kirolak-eko lau erosketa txartela zozketatu zituzten 77 parte-

hartzzaileen artean. Erniobide elkarteak eskainitako merienda ederraren ondoren. Hauetaz gain, Alpino Uzturre elkarteak Tolosako eta Hernialdeko udalen laguntza eskertu nahi du.

VILLABONA ▶

Udalak Bilgune Feministaren deialdiarekin bat egin du

Joan den ostegunean emakume batek jasandako erasoak gaitzetsi du

ERREDAKZIOA

Villabonan joan den ostegun gauean haurdun zegoen emakume bat ustez haren senarrak jipoiitza egatik Tolosaldeko Bilgune Feministak «eraso» salatu egin zuen. Horregatik, eta salaketa egin dutela erakusteko, elkarretaratzea egingo dute bihar Zubimuxu zubian, 20:00etan. Villabonako Udalak ere bat egin du Bilgune Feministak egindako deialdiarekin.

Bilguneak berretsi zuen indarkeria sexista «arazo sozial bat» dela eta hori konpontzeko benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza behar dela. Horregatik, Zizurkil eta Villabona arteko zubira «eraso» honen aurrean jendeak erantzutea beharrezkotzat jotzen dute.

Haurdun dagoen emakumea eraso zuen gizonetokak 31 urte ditu.

AIZKORA ▶

Otaegi eta Rekondo, aurrez aurre, abenduaren 23an

Kantabrikekin egin zuten tratua; 4.000 euro jokatzera adostu zuten bi gazteek

NEREA URBIZU

Joseba Otaegi eta Jon Rekondo aizkolarien arteko apustua abenduaren 23an izango da Tolosako zezen-plazan, eguerdi aldera. Bertan, herenegun iluntzean Kantabrikekin adostu-takoaren arabera, 8 kanaerdiko eta 60 ontzako sei enbor moztu beharko dituzte.

Gazteak dira biak, eta bien-tzat ere, lehen apustua da. Joseba Otaegi zizurkildarrak III. Mailako Txapelketa irabazi zuenean desafio baterako deia luzatu zion Jon Rekondo leitzarriari, eta Kantabrikekin azaldu zedila. Hala egin zuen Leitzakoak, eta 4.000 euro jarri dituzte jokoan.

Otaegik esan bezala, «uste baino denbora gutxiago daukagu prestatzeko, baina Rekondok Eguberriak baino lehenago egin nahi zuela esan zuenez, hala geratu ginen». Probari dagokionez, «hau luze-agoa izango da, txapelketetan egiten duguna baino. Guk 30 bat minutukoa izango dela kalkulatu dugu». Beraz, erresistentzia beharko dute bi gazte-ek.

Bakoitzak bi laguntzaile izanen ditu. Gauzek berdin jarraitzen badute, Rekondok Kristobal Lazkano eta Antonio Jaunarena eramanen ditu berarekin.



Joseba Otaegi eta Jon Rekondo, apustua zehazteko garaian, Kantabrikekin. ASIER IMAZ

Gazteak esan bezala «bakarrik egotea baino hobea da bi laguntzaileekin joatea, animoak emateko, edo kolpea non eman esateko». Zizurkildarrak berdin pentsatzen du, «psikikoki laguntzen du ondoan norbait izateak, eta burua arintzen dizu ere. Konfidantza zure buruarengan izateko balio du».

Ez da Rekondo eta Otaegi elkarrekin aritzen diren lehengo aldia, txapelketa baten baitan. Rekondok esan bezala,

«orduan ni nintzen favorito, baina Otaegik irabazi zuen; beraz, auskalo zer gertatuko den».

Desafioetan berri-berriak dira bi aizkolaria hauek eta ikusmina sortu da Tolosaldean eta Leitzaldean. Adituen arabera, «ez dugu uste alde handirik egongo denik bien artean. Ziurra da, behintzat, joku polita izango dela, eta jendea Tolosako zezen-plazan azaltzea espe- ro dutela».

DATUAK ▶

Apustu-egileak.

Jon Rekondo (Leitza) eta Joseba Otaegi (Zizurkil).

Eguna. Abenduak 23.

Ordua. 12:00ak aldera.

Herria. Tolosa.

Tokia. Zezen-plaza.

Jokaturakoa. 4.000 euro.

Irabazlearentzat dena.

Apustua. 8 kanaerdiko eta 60 ontzako 6 enbor.

UEMA ▶

Zuzendaritzan berriak, Maria Azpiroz eta Miren Aburuza

ERREDAKZIOA

Zestean Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Batzar Nagusia izan zen atzo eta bertan osatu ziren Mankomunitatearen zuzendaritzako organoak.

Zuzendaritza Batzordea adostuta zegoen moduan osatu da: lau EAE-ANVren ordezkari izango dira, eta tartean, Maria Azpiroz, Leitzako zinegotzia eta Miren Aburuza, Adunako zinegotzia daude.

ANOETA ▶ AHT



Mendira, AHT proiektuaz informatzeko

N. Urbizu ▶ Anoetak abenduaren 2rako herri kontsulta antolatu du, AHTren inguruan. Aurretik, jendea informatu nahian eta proiektuari buruzko «informazio gutxi hori» zabaldu nahian mendi martxa egin zuten atzo goizean, eta «kalte-tuekin» eta baserritarrekin egon ziren, baserri baserri joan baitziren, eta hauei herri kontsultari buruzko datuzia banatu zieten. Hautsitako bi panelen lekuan berriak jarri zituzten, eta Agarre bordan bazkaldu zuten. Besteak beste, mehategiak eta Basagain ere bisitatu zituzten. **N. URBIZU**

AZOKA ▶

Leka eta barazki ugari aurki daitezke azokan

Lore eskaintza ikusita, nabaria da egun gutxi falta direla Santu Guztien Egunerako

PABLO ALBERDI

Goiz freskoa izan zen atzokoa Tolosan. Erosle goiztiar ugari gerturatu ziren azokara, eguerdiko jende pilaketak ekidinez.

Zerkausiak nahiz Berdura Plazak, itxura zoragarria ageri zuten goiz goizetik. Urteko sasoi hotzetako barazki eta lekak aurki zitezkeen. Baita udazkeneko fruituak ere: udareak, sagarrak, gaztainak... Baina, batez ere, lore apaingarrien kolore biziak ikus zitezkeen.

Santu Guztien Eguna iristear denean, lore zaintzako profesionalak lan gehien egiten duten garaia heldu da. Mota honetako postuetako batzuk Zerkausian daude. Baina denek izan beharko lukete beraien lekua Berdura Plazan. Hau denon onurarako izango litzateke.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	3,50	12,00
Krisantemoa	4,00	18,00
Biola	3,00	-
Txinar krabelina	2,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Biola	3,00	-

Bertako produktuak

Onddoa	16,00	24,00
Kuletroa	19,00	35,00
Gaztaina	3,00	-
Sagar gorria	1,10	1,90
Intzaurra	2,50	4,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Behi gazta	11,00	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Kalabaza	1,50	3,00
Tomatea	2,00	4,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	4,00
Baraburia	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Erremolabxa	1,60	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60
Lebua	1,00	-
Aza	2,50	3,00

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 28a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **16** hotzena **11**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (balantza argizteko, harpidetuen egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. Jubilatuen Eguna: 11:15ean meza nagusia; ondoren, dantzarien eta bertsoariaren saioa; 14:00etan bazkaria, Arandia jatetxean.
Orendain. Nikasio Garmendia eta Jexux Mari Ormazabal arteko apustua. Alegiatik Orendaina doan bidegurutzetik, 12:00etan abiatuko dira bizikletaz Orendainera.
Tolosa. Olarraingo jaietan, 19. Mendi Bizikleta Trabiesa 10:00etan; ondoren, hamaiketakoa; 12:00etan umeentzako jolasak; 13:00etan patata tortilla lehiaketa; 14:00etan bazkaria eta trikitilariak eta bertsolariak.
Gaztelu. Jubilatuen Eguna:



Pobreen jana, gaur, gutizia bihurtu da

OREXA ▶ Kultur Hamabostaldiko ekitaldien baitan, taloak egiten jarri ziren atzo orexarrak. Artirina, ura eta gatz hartu, hauekin masa egin eta astintzen hasi ziren, garai batean etxeoandre askok egiten zuten bezala. Baina, hau bakarrik jateko lehorra geratzen denez, honi laguntzeko, txistorra eta txokolata izan zituzten, barrura sartzen laguntzeko. Adin guztietako orexarrek ikasi zuten beraz atzo arratsaldean, taloak nola egiten eta jaten diren. Ekitaldiekin jarraituz, gaur XX. Uitzu-Orexa ibilaldia izango da goizean. Ondoren, 14:00ak aldera, herri bazkaria, trikitilariak alaituta. E. EZEIZA

12:00etan meza nagusia; ondoren, dantzariak; 14:00etan bazkaria.

ZINEMA

Tolosa. *Locos por el surf* filma, 17:00etan, Leidorren.
Tolosa. *Invasion* filma, 19:30ean, Leidorren. Bihar ez da saiorik izango.
Tolosa. *Jackass II* filma, Bonberenean, 19:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 51 18.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

Bihar
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Irurtzun. Multioa, A.M. San Martin, 5. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Maddy Aizpirtarte Tobar (Belauntza). Gaur 6 urte. Zorionak etbekekoen partetik.



ZORIONAK
 35 urte elkarrekin, beste hainbeste bete ditzazuela. Etxekoak.



URTE ASKOAN
 Zorionak Isma! Muxu eta besarkada handi bat. Eutsi goiari, txapeldun! Soraya eta Joxean

URTE ASKOAN
 Iñigo Guriñe Lasa (Villabonako euskal preso politikoa).
 Borroka ez du etenik, ez digite irrifarra kenduko, Villabonako kaleetan zuen presentzia bermatu bitartean borrokan jarraituko dugu. Zure borroka lagunak.

Oinarriko Informatika ikastaroa

Tolosaldean IKASTN

Hasieta: Azaroa
 Moduluak: 35 ordu
 - Windows 2000
 - Testu prozesadorea
 - Internet
 - Korreoa

Biluzteko Ozean Zeharrekako Ikastetxea
 www.ikastn.com

Informazioa eta matrikulazioa: 615375678
 Tolosaldeko Udalaren Informatika Zentroa (17. Urtekoa)

KM KULTURUNA

Kolegio Mitxelena Kulturunea
 Leindaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
 Tel.: 943 11 28 93
 programazioa@gipuzkoa.net
 www.gipuzkoa.net/kultura

ARTISTA BERRIEN XLII LEHIAKETA

Erakusketa
 2007ko urriak 9 - azaroak 10

BATEKMILA EUSKAL MUNDUAK

Multimedia erakusketa
 2007ko irailaren 19tik azaroaren 17ra

ORDUTEGIA
 asteartik larunbatera:
 10:30-14:00 / 16:00-20:30
 astelehena, igande eta jaiegunetan itxia